


# Brassens euskaraz

---

## ANJE DUHALDE

George Brassens (Sète, 1921 - Saint-Gely-du-Fesc, 1981) poeta eta kantariaren poema hauek Anje Duhaldek euskaratuak dira, eta bere disko berri batean argitaratuko ditu, «Anje Duhalde, Geroge Brassens kantari» izenez. Diskoa 2000ko martxoan grabatu zuen Baionan, zuzeneko kontzertuan.



## La mauvaise réputation

Au village, sans prétention,  
J'ai mauvaise réputation.  
Qu' je m' démène ou qu' je reste coi  
Je pass' pour un je-ne-sais-quoi!  
Je ne fait pourtant de tort à personne  
En suivant mon de petit bonhomme.  
Mais les braves gens n'aiment pas que  
L'on suive une autre route qu'eux,  
Tout le monde médit de moi,  
Sauf les muets, ça va de soi.

Le jour du Quatorze Juillet  
Je reste dans mon lit douillet.  
La musique qui marche au pas,  
Cela ne me regarde pas.  
Je ne fais pourtant de mal à personne,  
En n'écoutant pas le clairon qui sonne.  
Mais les brav's gens n'aiment pas que  
L'on suive une autre route qu'eux,  
Tout le monde me montre du doigt  
Sauf les manchots, ça va de soi.

Quand j' crois' un voleur malchanceux,  
Poursuivi par un cul-terreux;  
j' lance la patte et pourquoi le tair',  
Le cul-terreux s' retrouv' par terr'  
Je ne fait pourtant de tort à personne,  
En laissant courir les  
voleurs de pommes.  
Mais les brav's gens n'aiment pas que  
L'on suive une autre route qu'eux,  
Tout le monde se rue sur moi,  
Sauf les culs-d'jatt', ça va de soi.

Pas besoin d'être Jérémie,  
Pour d'viner l'sort qui m'est promis,  
s'ils trouv'nt une corde à leur gout,  
Ils me la passeront au cou,  
Je ne fait pourtant de tort à personne,  
En suivant les ch'mins qui n' mènent pas  
à Rome,  
Mais les brav's gens n'aiment pas que  
L'on suive une autre route qu'eux,  
Tout l' mond' viendra me voir pendu,  
Sauf les aveugl's, bien entendu.

## Fama txarra

Ez diot harrokerian,  
fama txarra dut herrian.  
Mintzatu edo isildu  
lotsagabe naute deitu!  
Ez dut nehoi kalterik egiten  
nire bidexka dut zintzo segitzen.  
Baina jendeek ez dute maite  
beren gisa bizi ez bazare,  
nitaz dira gaizki mintzo,  
mutuak ez bistan dago.

Pesta nazionalean  
ni gelditzen naiz ohean,  
musika militarri  
gorroto diot aspaldi.  
Ez dut nehoi kalterik egiten,  
musika hori ez bazait gustatzen.  
Baina jendeek ez dute maite  
beren gisa bizi ez bazare,  
denen erhi puntan nago,  
beso motzenez salbo.

lheslari bat ikustean  
zakurrak bere atzean,  
harrika haizatzen ditut,  
beharduna laguntzen dut.  
Ez dut nehoi kalterik egiten  
zakurrak niri ez zaizkit gustatzen.  
Baina jendeek ez dute maite  
beren gisa bizi ez bazare,  
lasterka ditut ondotik,  
denak zango motzak ezik.

Profeta ez izan arren  
badakit zer pentsatzen duten,  
soka bat dute hartuko  
lepotik dautate pasako.  
Ez dut nehoi kalterik egiten  
beren bideak ez baditut hartzen.  
Baina jendeek ez dute maite  
beren gisa bizi ez bazare,  
zintzilik ikusiko naute,  
itsuek ez hanbat hobe.

## Oncle Archibald

O vous, les arracheurs de dents,  
Tous les cafards, les charlatans,  
Les prophètes,  
Comptez plus sur oncle Archibald  
Pour payer les violons du bal  
A vos fêtes... (bis)

En courant sus à un voleur  
Qui venait de lui chiper l'heure  
A sa montre,  
Oncle Archibald, – coquin de sort!  
Fit, de Sa Majesté la Mort,  
La rencontre... (bis)

Telle un' femm' de petit' vertu,  
Elle arpentait le trottoir du  
Cimetière,  
Aguichant les homm's en troussant  
Un peu plus haut qu'il n'est décent  
Son suaire... (bis)

Oncle Archibald, d'un ton gouailleur,  
Lui dit : "Va-t'en fair' pendre ailleurs  
Ton squelette...  
Fi ! des femelles décharnées !  
Vive les bell's un tantinet  
Rondelettes !" (bis)

Lors, montant sur ses grands chevaux,  
La Mort brandit la longue faux  
D'agronome  
Qu'elle serrait dans son linceul,  
Et faucha d'un seul coup, d'un seul,  
Le bonhomme... (bis)

Comme il n'avait pas l'air content,  
Elle lui dit : "Ça fait longtemps  
Que je t'aime...  
Et notre hymen à tous les deux  
Était prévu depuis l' jour de  
Ton baptême..." (bis)

"Si tu te couches dans, mes bras,  
Alors la vi' te semblera  
Plus facile...  
Tu y seras hors de portée  
Des chiens, des loups, des homm's et des  
Imbéciles..." (bis)

"Nul n'y contestera tes droits,  
Tu pourras crier : Viv' le roi!  
Sans intrigue...  
Si l'envi' te prend de changer,  
Tu pourras crier sans danger  
Viv' la Ligue !" (bis)

Et mon oncle emboîta le pas  
De la bell', qui ne semblait pas,  
Si féroce..  
Et les voilà, bras d'ssus, bras d'ssous,  
Les voilà partis je n' sais où  
Fair' leurs noces... (bis)

## Osaba Artxibald

Zuek gezurti galantak,  
kakamarlo ta profetak,  
zuen pestetarako  
osaba Artxibalen gain  
ez ametsik egin orain  
tragotarako...

Ohoin txar baten ondotik  
oren ebasle ohoitatik  
zebilenean,  
andere heriotza du  
Artxibalek ezagutu  
bere bidean...

Ema galdu bat bezala,  
hor zebilen tirahala  
hilerriko bidean,  
dena keinu, gona labur  
bere errape ta ipur  
dena airean...

Artxibalek dio "Alde,  
neretzat ditun debalde  
hire hezur zaharrak...  
Alde hemendik argalak!  
Nahiago tinat potolak,  
neska ederrak!"

Heriotza haserretu  
ta eskuetan du hartu  
segarik xorrotxena;  
bi pusketan du zatitzen,  
golpe bakar batez hiltzen  
gure gizona...

Urduri agertu baitzen  
heriotzak du kantatzen:  
"Maite haut aspaldian  
hire bataio egunez,  
ezkondu gaituk zinez  
nahi gabian."

"Nere besotan etzanez,  
bizia dukek ordainez  
betea zorionez;  
ez duk beldurrik izanen  
otso zakur ta gizonen  
astokeriaz..."

"Lauda ezak erregea  
hemen hire duk legea.  
Pentsatua ez uka  
eta aldatu nahi baduk  
oihuka dezakeaguk:  
gora liga!"

Osabak segitu zuen  
emaztea, zeren ez zen  
hainbeste beldurgarri...  
Eta biak hor doatzi  
ez dakit nora hain bizi  
ezkonberri...



## La mauvaise herbe

Quand l' jour de gloire est arrivé,  
Comm' tous les autr's étaient crevés,  
Moi seul connus le déshonneur  
De n' pas êtr' mort au champ d'honneur.

Je suis d'la mauvaise herbe,  
Braves gens, braves gens,  
C'est pas moi qu'on rumine  
Et c'est pas moi qu'on met en gerbe...  
La mort faucha les autres  
Braves gens, braves gens,  
Et me fit grâce à moi,  
C'est immoral et c'est comm' ça !  
La la la la la la la  
La la la la la la la  
Et je m' demand'  
Pourquoi, Bon Dieu,  
Ca vous dérange  
Que j' vive un peu...  
Et je m' demand'  
Pourquoi, Bon Dieu,  
Ca vous dérange  
Que j' vive un peu...

La fille à tout l' monde a bon coeur,  
Ell' me donne, au petit bonheur,  
Les p'tits bouts d' sa peau, bien cachés,  
Que les autres n'ont pas touchés.

Je suis d' la mauvaise herbe,  
Braves gens, braves gens,  
C'est pas moi qu'on rumine  
Et c'est pas moi qu'on met en gerbe...

Elle se vend aux autres,  
Braves gens, braves gens,  
Elle se donne à moi,  
C'est immoral et c'est comme ça !  
La la la la la la la  
La la la la la la la  
Et je m' demand'  
Pourquoi, Bon Dieu,  
Ca vous dérange  
Qu'on m'aime un peu...  
Et je m' demand'  
Pourquoi, Bon Dieu,  
Ca vous dérange  
Qu'on m'aime un peu...

Les hommes sont faits, nous dit-on,  
Pour vivre en band', comm' les moutons.  
Moi, j' vis seul, et c'est pas demain  
Que je suivrai leur droit chemin.

Je suis d' la mauvaise herbe,  
Braves gens, braves gens,  
C'est pas moi qu'on rumine  
Et c'est pas moi qu'on met en gerbe...  
Je suis d' la mauvaise herbe,  
Braves gens, braves gens,  
Je pousse en liberté  
Dans les jardins mal fréquentés !  
La la la la la la la  
La la la la la la la  
Et je m' demand'  
Pourquoi, Bon Dieu,  
Ca vous dérange  
Que j' vive un peu...  
Et je m' demand'  
Pourquoi, Bon Dieu,  
Ca vous dérange  
Que j' vive un peu...

## Belar txarra

Askatasuna ospatzean,  
denak ziren hilotzean,  
nik nuen desohorea  
bizirik nintzen ordea.

Belar txarretik naiz,  
lagunak, lagunak,  
ez naute hausnartzen  
ez ta lore sortetan jartzen...  
Denak hil zituzten,  
lagunak, lagunak,  
ni bizirik nintzen,  
ez da bide, horrela da,  
La la la la la la la la  
La la la la la la la la  
Baina zergatikan ote  
bizitzen uzten ez naute...  
Baina zergatikan ote  
bizitzen uzten ez naute...

Denen neskak bihotz onez,  
neri eskaintzen daut zinez,  
larru puska hoberena  
besteek uki ez dutena.

Belar txarretik naiz,  
lagunak, lagunak,  
ez naute hausnartzen  
ez ta lore sortetan jartzen...

Besteer saltzen da,  
lagunak, lagunak,  
neri eskaintzen  
ez da bide, horrela da,  
La la la la la la la la  
La la la la la la la la  
Baina zergatikan ote  
maitatzen uzten ez naute...  
Baina zergatikan ote  
maitatzen uzten ez naute...

Gizonak ardi gisara,  
artaldean bizi dira.  
Bakarti naiz ta hortarako  
bide horri diot uko.

Belar txarretik naiz,  
lagunak, lagunak,  
ez naute hausnartzen  
ez ta lore sortetan jartzen...  
Larre lorea naiz,  
lagunak, lagunak,  
ez baratzekoa  
ez da bide, horrela da,  
La la la la la la la la  
La la la la la la la la  
Baina zergatikan ote  
bizitzen uzten ez naute...  
Baina zergatikan ote  
bizitzen uzten ez naute...

## Dans l'eau de la claire fontaine

Dans l'eau de la claire fontaine  
Elle se baignait toute nue.  
Une saute de vent soudaine  
Jeta ses habits dans les nues.

En détresse, elle me fit signe,  
Pour la vêtir, d'aller chercher  
Des morceaux de feuilles de vigne,  
Fleurs de lis ou fleurs d'oranger.

Avec des pétales de roses,  
Un bout de corsage lui fis.  
Mais la belle n'était pas bien grosse :  
Une seule rose a suffi  
Qu'une seule feuille a suffi.

Elle me tendit ses bras, ses lèvres,  
Comme pour me remercier...  
Je les pris avec tant de fièvre  
Qu'ell' fut toute déshabillée.

Le jeu dut plaire à l'ingénue,  
Car, à la fontaine souvent,  
Ell' s'alla baigner toute nue  
En priant qu'il fit du vent,  
Qu'il fit du vent...

## Iturriko ur gardenean

Iturriko ur gardenean  
igerika biluzik zen.  
Bere jantzia bat batean  
haizeak eraman zuen.

Urduri, keinu egin zautan,  
janzteko bila joan nedin,  
mahats kirten batzu hostotan  
edo beste zerbait berdin.

Larrosaren lorearekin  
bular gain egin nuen,  
baina zuen gorputzarekin  
erbatz bat nahiko batekin.

Ezpainak eskaini zizkidan,  
ustez eskertu nahian...  
Hartu nituen sukarretan  
ta biluzik zen abian.

Gustatu zitzaion manera,  
zeren usu iturrira  
biluzik zetorren urera,  
haize eskean zerura, bai zerura.



## Je me suis fait tout petit

Je n'avait jamais ôté mon chapeau  
Devant personne  
Maintenant je rampe et je fait le beau  
Quand ell' me sonne  
J'étais chien méchant ell' me fait manger  
Dans sa menotte  
J'avais des dents d' loup, je les ai changées  
Pour des quenottes!

Je m' suis fait tout p'tit devant un' poupée  
Qui ferm' les yeux quand on la couche  
Je m' suis fait tout p'tit devant un' poupée  
Qui fait Maman quand on la touche.

J'étais dur à cuire ell' m'a converti  
La fine mouche  
Et je suis tombé tout chaud, tout rôti  
Contre sa bouche  
Qui a des dents de lait quand elle sourit  
Quand elle chante  
Et des dents de loup, quand elle est furie  
Qu'elle est méchante.

Je subis sa loi, je file tout doux  
Sous son empire  
Bien qu'ell' soit jalouse au-delà de tout  
Et même pire  
Un' jolie pervench' qui m'avait paru  
Plus joli' qu'elle  
Un' jolie pervench' un jour en mourut  
A coup d'ombrelle.

Tous les somnambules, tous les mages m'ont  
Dit sans malice  
Qu'en ses bras croix, je subirais mon  
Dernier supplice  
Il en est de pir's li en est d' meilleur's  
Mais à tout prendre  
Qu'on se pendre ici, qu'on se pendre ailleurs  
S'il faut se pendre.

## Ttiki ttikia

Ez nuen inoiz txapelik kendu  
nehoren aurrean  
ta orai berriz noa zorutzen  
deitzen nauenean.  
Otso nintzen ta bere eskutik  
jaten dut geroztik,  
zakur gaixtoaren hortz handiak  
ez ditut jadanik.

Ttiki-ttikia bihurtu nintzen,  
panpina bat besterik ez zen,  
etzanda begiak hesten zituen  
aita-ama erraiten zekien.

Beti izan naiz oso egoskorra,  
ah! zer aldaketa,  
urtu egin naiz bere ezpainetan  
izotzen antzera;  
ezpain gozoak, ezpain xamurrak  
kontent dagoenean,  
bihurtzen dira mutur luzean  
haserre denean.

Segi behar ditut bere legeak,  
agindu guziak,  
zentzugabeko erokeriak  
ta jeloskeriak.  
Neska xarmant bat behin agertu zen  
etxeko atarian,  
golpe ederrak bildu zituen  
bere ausardian.

Azti guziek erran didate  
galduta nagola  
panpina hunen atzaparretan  
hiltzera noala.  
Ustegabeen denak gabiltza  
borreroaren bila  
nere kasua desiratzen dut  
bera izan dadila.

## Pauvre Martin

Avec une bêche à l'épaule,  
Avec, à la lèvre, un doux chant,  
Avec, à la lèvre, un doux chant,  
Avec, à l'âme, un grand courage,  
Il s'en allait trimer aux champs

Pauvre Martin, pauvre misère,  
Creuse la terr', creuse le temps

Pour gagner le pain de sa vie,  
De l'aurore jusqu'au couchant,  
De l'aurore jusqu'au couchant,  
Il s'en allait bêcher la terre  
En tous les lieux, par tous les temps !

Pauvre Martin, pauvre misère,  
Creuse la terr', creuse le temps

Sans laisser voir, sur son visage,  
Ni l'air jaloux ni l'air méchant,  
Ni l'air jaloux ni l'air méchant,  
Il retournait le champ des autres,  
Toujours bêchant, toujours bêchant !

Pauvre Martin, pauvre misère,  
Creuse la terr', creuse le temps

Et quand la mort lui a fait signe  
De labourer son dernier champ,  
De labourer son dernier champ,  
Il creusa lui-même sa tombe  
En faisant vite, en se cachant...

Pauvre Martin, pauvre misère,  
Creuse la terr', creuse le temps

Il creusa lui-même sa tombe  
En faisant vite, en se cachant,  
En faisant vite, en se cachant,  
Et s'y étendit sans rien dire  
Pour ne pas déranger les gens...

Pauvre Martin, pauvre misère,  
Dors sous la terr', dors sous le temps !

## Gaixo Mattin

Kantu ezti bat ahoan eta,  
bizkar gainean haitzurra,  
arima kuraiaz beterik,  
landara doa lanera.

Gaixo Mattin, gaixo gizona,  
lur denbora zilatuz doa.

Bere ogia irabazteko,  
goizetik aratseraino,  
lur idorra landu behar du,  
denetan ta denendako!

Gaixo Mattin, gaixo gizona,  
lur denbora zilatuz doa.

Jelosi edo tzarkeria,  
izpirikan ez agertuz,  
bertzeen lurrak iraultzen ditu,  
haitzurkatuz, haitzurkatuz!


Gaixo Mattin. gaixo gizona,  
lur denbora zilatuz doa.

Heriotzak dei egin dio  
azken lurra itzulita,  
bere hobia moldatu du,  
gordezka eta lasterka.

Gaixo Mattin, gaixo gizona,  
lur denbora zilatuz doa.

Bere hobia eginikan,  
gordezka eta lasterka,  
han etzan da isilik,  
nehor ez zedin belaunika...

Gaixo Mattin, gaixo gizona,  
lur denboran la sartu da!



## La complainte des filles de joie

Bien que ces vaches de bourgeois  
Les appell'nt des filles de joi'  
C'est pas tous les jours qu'ell's rigolent,  
Parole, parole,  
C'est pas tous les jours qu'elles rigolent.

Car, même avec des pieds de grues,  
Fair' les cent pas le long des rues  
C'est fatigant pour les guibolles,  
Parole, parole,  
C'est fatigant pour les guibolles.

Non seulement ell's ont des cors,  
Des oeils-de-perdrix, mais encor  
C'est fou ce qu'ell's usent de grolles,  
Parole, parole,  
C'est fou ce qu'ell's usent de grolles.

Y'a des clients, y'a des salauds  
Qui se trempent jamais dans l'eau.  
Faut pourtant qu'elles les cajolent,  
Parole, parole,  
Faut pourtant qu'elles les cajolent.

Qu'ell's leur fasse la courte échell'  
Pour monter au septième ciel.  
Les sous, croyez pas qu'ell's les volent,  
Parole, parole,  
Les sous, croyez pas qu'ell's les volent.

Ell's sont méprisés du public,  
Ell's sont bousculés par les flics,  
Et menacés de la vérole,  
Parole, parole,  
Et menacés de la vérole.

Bien qu' tout' la vie ell's fass'nt l'amour,  
Qu'ell's se marient vingt fois par jour,  
La noce est jamais pour leur fiole,  
Parole, parole,  
La noce est jamais pour leur fiole.

Fils de pécore et de minus,  
Ris par de la pauvre Vénus,  
La pauvre vieille casserole,  
Parole, parole,  
La pauvre vieille casserole.

Il s'en fallait de peu, mon cher,  
Que cett' putain ne fût ta mère,  
Cette putain dont tu rigoles,  
Parole, parole,  
Cette putain dont tu rigoles.

## Plazer emeen eresia

Burgesek deitzen dituzte  
plazer eme eta beste,  
bizia ez dute eztia,  
egia, egia,  
bizia ez dute eztia.

Nahiz ta antzar hankak izan,  
karrikan nola dabiltzan  
oinentzat da nekagarria,  
egia, egia,  
oinentzat da nekagarria.

Zangoak oinazez bete,  
eper begi eta beste  
oinetakoa higatia,  
egia, egia,  
oinetakoa higatia.

Kliente batzu zitalak,  
kobarde eta ustelak,  
baina laztandu behar dira,  
egia, egia,  
baina laztandu behar dira.

Zurubia behar egin,  
plazerrera igan dadin,  
ez da errex aлегia,  
egia, egia,  
ez da errex aлегia,

Begi txarrez ikusiak,  
ta zakurren erasiak,  
ihesaren amildegia,  
egia, egia,  
ihesaren amildegia.

Hogei aldiz egunean,  
ezkontzen amodioan,  
horientzako ez da ezteia,  
egia, egia,  
hoientzako ez da ezteia.

Pecore ta minusen seme,  
ez trufatu huntaz ume,  
delakoan zaharregia,  
egia, egia,  
delakoan zaharregia.

Gutitatik haiz libratu,  
ama ez zaik suertatu,  
iraintzen dukan emazia,  
egia, egia,  
iraintzen dukan emazia.



## Brave Margot

Margonton la jeune bergère  
 Trouvant dans l'herbe un petit chat  
 Qui venait de perdre sa mère  
 L'adopta  
 Elle entrouvre sa collerette  
 Et le couche contre son sein  
 c'était tout c' quelle avait pauvrete  
 Comm' coussin  
 Le chat la prenant pour sa mère  
 Se mit à téter tout de go  
 Emue, Margot le laissa faire  
 Brav' margot  
 Un croquant passant à la ronde  
 Trouvant le tableau peu commun  
 S'en alla le dire à tout l' monde  
 Et le lendemain

Quand Margot dégrafait son corsage  
 Pour donner la gougoutte à son chat  
 Tous les gars , tous les gars du village  
 Etaient là, la la la la la la  
 Etaient là, la la la la la la  
 Et Margot qu' était simple et très sage  
 Présuait qu' c' était pour voir son chat  
 qu' les gars , tous les gars du village  
 Etaient là, la la la la la la  
 Etaient là, la la la la la la.

L' maitre d'école et ses potaches  
 Le mair', le bedeau, le bougnat  
 Négligeaient carrément leur tache  
 Pour voir ça  
 Le facteur d'ordinair' si preste  
 Pour voir ça, n' distribuait plus  
 Les lettre que personne au reste  
 N'aurait lues.  
 Pour voir ça, Dieu le pardonne,  
 Les enfants de coeur au milieu  
 Du Saint Sacrifice abandonnent  
 Le Saint lieu.  
 Les gendarmes, mem' mes gendarmes  
 Qui sont par natur' si ballots  
 Se laissaient toucher par les charmes  
 Du joli tableau.

Mais les autr's femm's de la commune  
 Privés d'leurs époux, d'leurs galants,  
 Accumulèrent la rancune  
 Patiemment...  
 Puis un jour, ivres de colère,  
 Elles s'armèrent de bâtons  
 Et, farouch's, elles immolèrent  
 Le chaton...  
 La bergère, après bien des larmes  
 Pour s'consoler prit un mari  
 Et ne dévoila plus ses charmes  
 Que pour lui...  
 Le temps passa sur les mémoires,  
 On oublia l'événement,  
 Seuls des vieux racontent encore  
 A leurs p'tits enfants...

## Gaizo Margot

Margonton artzaintsa gazteak  
katutxo bat du aurkitzen;  
ez zuen amarik tristeak.  
eta du biltzen.

Bere kortzeta idekirik  
bular gainean du jartzen;  
gaixoak beste aterperik  
ez du bilatzen.

Gatua, ama zelakoan,  
milikatzen hasten zaio.  
Margok uzten du arrapoa,  
gaizo Margot,  
hustu bat zagona begira  
irudia ikustean,  
kontatzera doa herrira  
eta segidan.

Margok erantzten bere jantziak,  
ase nahiz bere gatua,  
herriko, herriko gizon guziak,  
hor zirela, la la la la  
hor zirela, la la la la...  
Ta Margok uste zuen, abilak  
bere gatuarentzat zela  
herriko, herriko gizon guziak  
hor zirela, la la la la  
hor zirela, la la la la...

Errientak hori ikusteko,  
hauzapez eta ikazkinak,  
denek uzten zituzten geroko  
beren lanak.

Beti presaka den pietunak  
ez zuen kartarik banatzen,  
sekula nehork ez zituenak  
irakurtzen.

Ikusteko, jaungoikoa barka,  
beheterrek meza artean  
uzten dute apezka bakarka  
aldarean.  
Jendarmeak, jendarmeak ere,  
berez hain ezitia direnak,  
gelditzen dira begirale  
urde zikinak.

Baina herriko emazteak,  
senar eta galantik gabe,  
herraren minez beteak  
kexu dirade...  
Egun batez hasarre betez  
dute deliberatua  
hiltzen dute makila golpez  
gaixo gatua.  
Kontsolatzeko gure artzaintsak  
senar gazte bat du hartu,  
ta beretzat dituen xarmak  
gordetzen ditu...  
Denborak berea du bete,  
bipildu du oroimena,  
bakarrik agureek dute  
kondatzen dena.

## Quatre-vingt-quinze pour cent

La femme qui possède tout en elle  
Pour donner le goût des fêtes charnelles,  
La femme qui suscite en nous tant de passion brutale,  
La femme est avant tout sentimentale.  
Mais dans la main les longues promenades,  
Les fleurs, les billets doux, les sèrenades,  
Les crimes, les foli's que pour ses beaux yeux l'on commet,  
La transporte, mais...

Quatre-vingt-quinze fois sur cent,  
La femme s'emmerde en baisant.  
Qu'elle le taise ou le confesse  
C'est pas tous les jours qu'on lui déride les fesses.  
Les pauvres bougres convaincus  
Du contraire sont des cocus.  
A l'heure de l'oeuvre de chair  
Elle est souvent triste, peuchèr !  
S'il n'entend le coeur qui bat,  
Le corps non plus ne bronche pas.

Sauf quand elle aime un homme avec tendresse,  
Toujours sensible alors à ses caresses,  
Toujour bien disposé', toujours encline à s'émouvoir,  
Ell' s'emmerd' sans s'en apercevoir.  
Ou quand elle a des besoins tyranniques,  
Qu'elle souffre de nymphmani' chronique,  
C'est ell' qui fait alors passer à ses adorateurs  
De fichus quart d'heure.  
Les «encore», les «c'est bon», les «continue»  
Qu'ell' cri' pour simuler qu'ell' monte aux nues,  
C'est pure charité, les soupir des anges ne sont  
En général que de pieux menson(ges).  
C'est à seule fin que sont partenaire  
Se croie un amant extraordinaire,  
Que le coq imbécile et prétentieux perché dessus  
Ne soit pas déçu.

J'entends aller de bon train les commentaires  
De ceux qui font des châteaux à Cythère :  
«C'est parce que tu n'es qu'un malhabile, un maladroit,  
Qu'elle conserve toujours son sang-froid.»  
Peut-être, mais les assauts vous pèsent  
De ces petits m'as-tu-vu-quand-je-baise,  
Mesdam's, en vous laissant manger le plaisir sur le dos,  
Chantez in petto...  
Chantez in petto...

## Hamarretatik zortzitan

Emazteak dena du bere baitan  
gogo pizteko maitasun jokotan,  
emaztea, gutan sortzen duena sugarra.  
Lehen-lehenik da sentikorra,  
eskuz esku ibilaldi luzeak,  
hitznoak, kantuak eta loreak  
beregiatik egin hainbait astokeri, krima,  
maite'tu baina...

Hamarretatik zortzitan,  
emaztea aspertzen da txortan.  
Isiltzen ala aitortzen  
uzkia ez zaio usu alegeratzen.  
Bestela pentsu detenak,  
dira adardunak denak.  
Maitasun orenian  
ez dago beti lorian,  
bihotzik ez badago  
gorputza geldirik dago.

Baina gizon bat maite duelarik,  
bere laztanez da lilluraturik,  
beti dago baikor eta emozionatua,  
aspertzen dela ez ohartua.  
Aldiz behar handien mende bada,  
ninfomania kronikoz kutsatua,  
berak maitalei'tu pasarazten gorriak,  
une larriak.

«Oh! berriz, ona duk eta segi zak!»  
ustez pozez erraten 'tuen hitzak  
faltsuak dira ta aingeru erranen gisa,  
gehienetan gezur hutsa.  
Ilusionatzen dute partaidea,  
pentsaraziz dela ezin hobea,  
gainean duen oilar zozo eta bipila  
harro dadila.

Entzuten ditut hor mihi zaluak,  
Cytherren gazteluen egileak,  
«Ez haizelako trebea, baldar haizelako,  
beti odol hotza dik gordeko!»  
Agian, baina asper bazarete,  
oilar hoién kukurutaz hainbeste,  
emazteak, hauen bizkar gozatuz plazerra,  
kanta batera!  
kanta batera!



## Le testament

Je serai triste comme un saule  
Quand le Dieu qui partout me suit  
Me dira, la main sur l'épaule :  
«Va-t'en voir là-haut si j'y suis.»  
Alors, du ciel et de la terre  
Il me faudra faire mon deuil...  
Est-il encore debout le chêne  
Ou le sapin de mon cercueil ?  
Est-il encore debout le chêne  
Ou le sapin de mon cercueil ?

S'il faut aller au cimetière,  
J' prendrai le chemin le plus long,  
J' ferai la tombe buissonnière,  
J' quitterai la vie à reculons...  
Tant pis si les croque-morts me grondent,  
Tant pis s'ils me croient fou à lier,  
Je veux partir pour l'autre monde  
Par le chemin des écoliers.  
Je veux partir pour l'autre monde  
Par le chemin des écoliers.

Avant d'aller conter fleurette  
Aux belles âmes des damnés,  
Je rêv' d'encore une amourette,  
Je rêv' d'encor' m'enjuponner...  
Encore un' fois dire: «je t'aime»...  
Encore un' fois perdre le nord  
En effeuillant le chrysanthème  
Qui'est la marguerite des morts.  
En effeuillant le chrysanthème  
Qui'est la marguerite des morts.

Dieu veuill' que ma veuve s'alarme  
En enterrant son compagnon,  
Et qu' pour lui fair' verser des larmes  
Il n'y ait pas besoin d'oignon...  
Qu'elle prenne en secondes noces  
Un époux de mon acabit :  
Il pourra profiter d' mes bottes,  
Et d' mes pantoufle' et d' mes habits.  
Il pourra profiter d' mes bottes,  
Et d' mes pantoufle' et d' mes habits.

Qu'il boiv' mon vin, qu'il aim' ma femme,  
Qu'il fum' ma pipe et mon tabac,  
Mais que jamais - mort de mon âme!  
Jamais il ne fouette mes chats...  
Quoique je n'ai' pas un atome,  
Une ombre de méchanceté,  
S'il fouett' mes chats, y'a un fantôme  
Qui viendra le persécuter.  
S'il fouett' mes chats, y'a un fantôme  
Qui viendra le persécuter.

Ici-gît une feuille morte,  
Ici finit mon testament...  
On a marqué dessus ma porte :  
«Fermé pour caus' d'enterrement.»  
J'ai quitté la vi' sans rancune,  
J'aurai plus jamais mal aux dents :  
Me v'là dans la fosse commune,  
La fosse commune du temps.  
Me v'là dans la fosse commune,  
La fosse commune du temps.



## Testamentua

Segika daukadan jainko on  
horrek azken egunean  
«hoa gora ea han nagon!»  
erran diezadanean,  
sahats arbola bezain hitsa,  
utzi beharko dut dena,  
zutik ote dago haritza  
nere zerraldoarena?  
zutik ote dago haritza  
nere zerraldoarena?

Naiz hilerrira ez hutsegin,  
ez naiz otzanduko errez,  
ezin delako biper egin  
arrastaka, derrigorrez...  
Ibilaldi bitxia da hau,  
ni ez naiz egongo lotsak,  
lurremaileak hartzen banau  
beste munduko zorotzat,  
lurremaileak hartzen banau  
beste munduko zorotzat,

Bilaka aitzin arima koskor,  
urano ta plutonekin,  
berriz egon nahi dut jeloskor,  
berriz jolasari ekin,  
beste behin jan amodioa,  
berriz irten kixkalia,  
desostatuz krisantemoa,  
nire hileta lilia,  
desostatuz krisantemoa,  
nire hileta lilia.

Izango al da alarguna  
samin handi baten jabe,  
ager diezadan maitasuna  
tipula beharrik gabe.  
Nire jantzirik ederrenez  
ateratzeko etekin  
esposa bedi bigarrenez  
nire mailako batekin,  
esposa bedi bigarrenez  
nire mailako batekin.

Nire andrea har dezala,  
edan, erre ta kunplitu.  
Baina otoi ez diezadala  
nere gatua hunkitu.  
Sekula mamuzale bitxi  
ez naiz izan, ze arraio!  
Baina jotzen badit pitxitxi,  
ni mamutuko natzaio,  
Baina jotzen badit pitxitxi,  
ni mamutuko natzaio.

Hemen dago hosto zimela,  
testamentua utzita.  
Atean jarri dut txartela  
«zendu zelako itxita».  
Adio agineko minak,  
gorrotoa akabo da,  
aldegin du nere arimak  
oroitzapenen zilora,  
aldegin du nere arimak  
oroitzapenen zilora.